

BEZEROAREKIKO HARREMANA:

Atal honetan enpresak merkatuko zenbait segmenturekin sortzen dituen harreman mota ezberdinak deskribatzen dira.

Gure kasuan Webgune bat izango dugu gure eskaintza egiteko. Webgune hori Interneten promozionatuko da bai Youtuben eta beste webgune ezberdinetan ere. Webgune horretan gure eskaintzaren informazio zehaztua adieraziko dugu eta bezeroei guri galderak egiteko aukera emango zaie, chat birtual baten bidez, emailaz edo zuzeneman dei baten bitartez.

Agentziek ere gure enpresaren propaganda egingo dute. Haien agentzia fisikoen erakustokietan gure eskaintzaren kartel bat ipiniko dute eta gainera, beraien webguneetan gure zerbitzuaren eskaintza adieraziko dute, prezioekin zehaztuta.

Propagandari dagokionez, telebistan eta irratan propaganda egiteko bideo bat sortuko dugu. Anuntzioa uda aurretik eta udan aurkeztuko da. Hautatu ditugun telebista-kanalen artean Telecinco eta Antena 3 daude, telebista-kanal horiek dituzten ikusle kantitatea handia baita. Irratiei dagokienez, Cadena 100 aukera ona iruditu zaigu nahiz eta telebista kanal hauen aurrean hain ezaguna ez izan, bezero gehiago edukitzeko metodo egokia delako .

Horrez gain, kartelak Espainiako hiriburuetan zehar itsatsiko ditugu. Karteltxo hauek probintzia bakoitzeko hiriburuko zentroan egongo dira kokatuak jendearengan atentzio gehiago erakusteko asmoarekin. Bertan hegazkin bat, biadaiatzeko kit bat eta paisai eder bat agertuko dira; gure mugikorraren zenbakia ere agerian egongo da.

Urtean behin gainera, udako hilabeteak hasi baino lehen, kartelak itsatsi diren kokalekuak aprobeztatuz, inguruko etxeetara gure zerbitzuen eskaintzaren panfleto bat bidaliko da. Honen helburua bezeroak erakartzea izango da eta bertan gure zenbakia eta webgunea agertuko dira.

Beherapenen eskaintza:

- Bezero berrientzako bere lehenengo erosketan %10aren beherapena egingo zaie erosketa guztietan, beraien atentzioa erakartzeko eta gure zerbitzuak ezagutzera emateko.

- Ekainako aste batean, bezero gutxien izango ditugun astean estatistikei dagokienez, azken orduko beherapenak egingo dira, %25eko beherapenekin. Bezeroak azken momentuan erakartzearen helburuarekin egingo dugu hau.

Lehiaketen eskaintza:

Jende gehiago erakartzeko eta diru pixka bat irabazteko helburuarekin (parteartzeko 5€), hainbat lehiaketen eskaintza egingo dugu eta sari moduan bidai ezberdinak izango dira. Lehiaketa hauek urtean zehar eskaini arren saria udarako egunetan izango da.

Adibide batzuk honako hauek dira:

- Argazki lehiaketa.
- Laburmetrai lehiaketak

KARTELA:



INEI

Bidaiatu nahiko zenuke beste kontinente batera baina ez dituzu gustoko helgaldi luzeak? Gure hegaldiak aukeratu eta iritziz aldatuko duzu!

www.inei.com Tel: 656812456